



Arartekoaren Ebazpena, 2009ko uztailaren 23koa. Horren bidez, erakundearen esku-hartzea amaitzen da premia bereziko egoeran etxebizitza eskaerari erantzunik ez ematearekin zerikusia duen kexa batean, Donostiako Udalak Arartekoaren erakundearekin elkarlanean aritzeko erabateko lankidetzarik eza adieraziz.

Aurrekariak

1. 2005eko ekainean erakunde honetan Donostiako herritar batek egindako kexa jaso genuen. Bertan, etxebizitzari zegokionez bere egoera larria azaldu zuen eta etxebizitza behar larriko egoerari irtenbidea emateko behin eta berriro egindako eskaeren aurrean Donostiako Udalaren erantzunik ez zuenez jaso, ados ez zegoela adierazi zuen.
2. Erreklamaziogilea 1997. urtetik alokairu erregimenean etxebizitza eskatzaile gisa udal horretan eta zegokion Eusko Jaurlaritzako erregistroan erregistratuta zegoen. Bere demandari, ordea, ez zitzaion erantzun eta ez zuen lortu hala izateko egiazko aukerarik. Noiz edo noiz Eusko Jaurlaritzak etxebizitza esleipena ukatu zion alokairuaren errentaren ordainketari aurre egiteko eska zitekeen sarrerren gutxienekora ez heltzeagatik. Kexa egin zuenean herritar honek lan kontratua zuen –garbitzailea lanak egiten zituen- eta horrekin ezin zuen merkatuko prezioa zuen etxebizitzaren alokairua ordaindu. Hori dela eta, babestutako etxebizitzaren errentamendua eskuratu nahi zuen. Kontu hori baino haratago, bere egoera pertsonala apartekoa eta premia berezikoa zen, hain zuzen ere, eskizofrenia zuen alaba bat baitzuen –adinez nagusia baina amaren legezko tutoretzaren mendekoa jarduteko ezgaitasunagatik-. Azken horrek Gizarte Segurantzak elbarritasuna aitortzea ekarri zuen. Egoera horrek beste pertsona batzuekin etxebizitza partekatzea eragozten edo zailtzen zion. Horregatik, kexa egin zuen unean amaren etxean egoteko beharrean zegoen, berak ez baitzuen bere etxebizitza.
3. Erreklamaziogileak adierazi duenaren arabera, udal instantzia jakin batzuek -berak horietara jo zuen- (bereziki, gizarte zerbitzuek eta orduko Etxebizitzaren Udal Patronatuak), uneren batean, eta hala helarazi zioten ahoz, bere eskaera behar bereziko egoerentzat premiazko zozketa motaren batek barne hartzeko aukera aintzat hartu zuten. Hala ere, kexagileak ez zuen alderdi horren inguruko berririk jaso. Arrazoi hori dela eta, interesdunak hainbatetan jo zuen udal horretara eta orduko Etxebizitzaren Udal Patronatura. Horietako hirutan, guk dakigula, behar bezala egindako idazkiekin (Etxebizitzaren Udal Patronatuari bidalitako 2004ko uztailaren 27koa eta Donostiako Udalari bidalitako 2004ko





azaroaren 11koa eta abenduaren 14koa) asmoa bere eskaerak aurrera egiteko aukerak ezagutzea zen. Dena den, ez zuen erantzunik jaso.

4. Gertakari horiek horrela eta etxebizitza beharraren berezitasuna eta premia aztertu ondoren, egoera ekonomiko eskasa eta erreklamaziogilearen mendeko alabarekin etxebizitza partekatzeko bizikidetasun egoera zaila kontuan hartuta, lehenengo Donostiako Udalarekin jarri ginen harremanetan, aipatutako etxebizitzaren udal patronatura bidali gintuenak. Gero, patronatu horretako arduradunarekin telefono bidezko harremana izaten saiatu ginen baina ez genuen lortu inolaz ere.
5. 2005eko uztailaren 11n Donostiako Udalarari informazio eskaera bidali genion. Bertan, gertakariak eta gogoetak azaldu ondoren, egoera horri erantzuna emateko, hilabeteko epean, udal lankidetzara eskatu genuen; hori guztia Arartekoaren erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legearen 23. eta 26. artikuluen babesean.
6. 2005eko urriaren 25ean, hiru hilabete igaro ziren informazio eskaera egin genuenetik -horren inguruko erantzunik ez genuen jaso-, udalari errekerimendua egitea ebatzi genuen, 15 egunean epean, eskatutako agiriak bidal diezazkigun.
7. Azkenik, 2006ko otsailaren 10ean, udalak erantzun gabe jarraitzen zuenez, errekerimendu berria egin genuen. Bertan, behin betiko errekerimendua zela aipatu genuen eta udalari gogoratu genion, erantzuten ez bazuen, ohararazpena bidaltzeko beharrean geundela, jokabide horrek erakunde honen egitekoa oztopatzen zuela aurrez kontuan hartuta -alegia, hasitako ikerketa oztopatzen zuela-. Jokabide hori Zigor Kodeko 502.2. artikuluan ezartzen da.
8. Azken errekerimendu horretatik igaro den denbora luzean zehar, kexagilearekin harremanetan egon gara eta erakunde honek Donostiako Udala izaten ari zen etengabeko jarrera isilari eta, ondorioz, oztopatzaileari aurre egiteko eduki zituen zailtasunak azaldu dizkiogu. Erreklamaziogileak esan du 2007ko abenduan Eusko Jaurlaritzak etxebizitza bat esleitu ziola hutsik dauden etxebizitzak alokairuan hartzeko Bizigune programaren esparruan. Hortaz, hasieran salatu zuen egoera jada konpondu zen eta horrek kexa honen izapidetzearekin jarraitzeko edozein ahalegin desegokitzat jo zuen. Hori gorabehera, uste du bidezkoa dela erakunde honetan hasitako prozedurarekin jarraitzea. Izan ere, udalak izandako jarrerak -lehenengo bere arazoa konpontzeko aukerak eman zizkionak eta gero, aldiz, idatziz behin eta berriro egindako eskaerei erantzuna ematea baztertu zuenak- sufrimendu latza ekarri dio, baita udalak laguntzeko esku hartu izan balu, laburragoa izango zen denbora luzea ere.





Azaldutako gertakariak aztertu ondoren, Donostiako Udalarari ebazpen hau helarazteko beharrean gaude. Ebazpen horrek jarraian aipatzen ditugun gogoetak ditu oinarri.

Gogoetak

1. Udalarari gure hausnarketa bi konturengatik helarazi nahi diogu: alde batetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoari jarraiki, herri-administrazio gisa, gure legezko sistemak formalki eskaera zuzentzen dioten pertsoneri espresuki erantzuteko ezartzen dion betebeharra; eta, bestetik, Eusko Legebiltzarreko Arartekoaren erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearekin bat etorritik, euskal herri-administrazio gisa erakunde honekin bidezko denboran eta moduan elkarlanean aritzeko dagokion legezko agindua.
2. Lehenengo kontuari dagokionez -udalak kexa eragin duen herritarrari erantzunik ez ematea-, udal horri gogoratu behar diogu herri-administrazioaren betebeharra dela berariaz, arrazoiak emanez eta bidezko epean herritarrek egindako eskaerei erantzutea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoarekin bat etorritik. Ildo horretatik, behin eta berriro diogu kexa hau aurkeztu duenak egoki formalizatu eta arrazoituta erantzuna jasotzeko eskubidea duela, eskaerari uko eginez gero, horretarako udal horrek zein arrazoi dituen ikus dezan.

4/1999 Legeak –aipatutako 30/1992 Legea aldatzen duenak- zioen azalpenean onartzen du administrazio isiltasuna *“administrazioen funtzionamendu egokiarekin zerikusirik ez duen prozeduraren patologia bat dela” eta “administrazioak erantzunik ematen ez dueneko egoera horrek, inoiz desiragarria ez denak, ezin diezazkiokeela alferrikako kalteak eragin herritarrari”.*

Bestalde, 30/1992 Legearen zioen azalpenak honakoa ezartzen zuen: *“lege honen helburua ez da administrazioaren jardura ezari izaera positiboa ematea partikularrak hari zuzentzen zaizkionean. (... ..) Administrazio isiltasunak, nola aldekoa hala kontrakoa izan, ezin du ezarpen juridiko arrunta izan, baizik eta, administrazioak dagozkion eginkizunak modu eraginkorrean eta arin betetzen ez dituenean, partikularren eskubideak edukirik gabe gera ez daitezzen bermatzen duena.”*



Arlo honetan bai 30/1992 Legearen bai 4/1999 Legearen azken helburua herritarrek administrazioaren berriazko erantzuna jaso dezatela eta, ahal dela, ezarritako epean izan dezatela lortzea da. Horretarako, beste zenbait neurriren artean, berriaz ebazteko betebeharra ezartzen die herri-administrazioei.

Arrazoi horiengatik, Donostiako Udalak interesdunak egindako eskaerei zegokien izapidetzea eman behar izan zien espediente behin betiko ebatzi arte, kontuan hartuta, gainera, ebazteko betebeharrak ebazteko epea amaitu den arren jarraitzen duela eta jarduerarik ezak ebazteko organo eskudunaren pertsona titularren behin-behineko diziplina erantzukizunerako bidea eman dezakeela.

lido horretan, egokia da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1, 42.7, 43.1 eta 43.3 artikuluek hitzez hitz diotena aipatzea. Honakoa diote:

“42. artikulua. Ebatzi beharra.

1. Administrazioa behartuta dago prozedura guztietan berriazko erantzuna ematera eta hori jakinaraztera, prozedurei hasiera emateko modua edozein dela ere (...).

(...)

7. Gaiak bideratzeaz arduratu behar duten herri-administrazioetako langileek eta instrukzioa egin eta ebazpena emateko eskumena duten administrazio organoetako titularrek, bakoitzak bere eskumen esparruaren barruan, erantzukizun zuzena dute, epe barruan ebazpen adierazia emateko legez ezarrita dagoen eginbeharra bete dadin.

Eginbehar hori bete gabe utziz gero, diziplina erantzukizuna eskatuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritako erantzukizunez gainera.

43. artikulua. Administrazio isiltasuna, interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan.

1. Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, gehieneko epea igaro eta ebazpen adierazia jakinarazi ez bada, interesdunak edo interesdunek zilegi dute, eskaria administrazio isiltasunez baietsi edo ezetsitzat jotzea, dagokion bezala. Dena den, administrazioak ebazpena eman beharko du artikulua honen 4. paragrafoan aurreikusitako moduan.

(...)



3. Administrazio isiltasunez baiestea prozedura amaitzen duen administrazio egintzat joko da, ondorio guztietarako. Administrazio isiltasunez ezestearen ondorio bakarra, ordea, interesdunei, kasuan-kasuan, administrazio errekurtoa edo administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkezteko bide ematea da. (guk azpimarratu dugu)

Agindu horietan jasotako araua -horren arabera, administrazioak beti ebatzi behar du- errepikatu egiten da lege horretako 89.4. artikuluan. Arau horrek ez du administrazioa betebeharrak horretaz salbuesten, ezta ebazteko zailtasun objektiboak dauden kasuetan ere. Xedapen horrek, beraz, hitzez hitz hauxe dio:

"89.4. Administrazioak beti eman behar du ebazpena; hau da, ezin ditu kasuan-kasuan aplikagarri diren lege aginduen hutsunea, iluntasuna edo murriztasuna aitzakiaz hartu ebazpenik ez emateko. Hori horrela bada ere, administrazioak onartezintzat jo ditzake eskubideak aitortzeko eskubideak, eskubide horiek ez badaude ordenamendu juridikoan aurreikusita edo argi eta garbi oinarria falta bazaie. Hala ere, interesdunek beti izango dute konstituzioaren 29. artikuluan jasotako eske eskubidea."

Alegia, administrazioaren isiltasun positiboa benetako administrazio egintza eraginkorra da eta administrazioak ezarritako berrikuspen prozedurekin bat etorri baino ezingo du hori berrikusi. Administrazio isiltasun negatiboa, aldiz, lege fikziotzat baino ez da hartzen, interesdunak administrazioarekiko auzi errekurtoa egiteko aukera izan dezan. Dena den, hori ez da eragozpen bat herri-administrazioak beti espresuki ebazteko betebeharra izan dezan, eskaeran jasotako asmoa ordenamendu juridikoan aurreikusita ez dagoenean eskaeraren ez onarpena aitortzeko bada ere.

Bestela esanda, denborak aurrera egiteak ez du ezabatzen administrazioak berariazko erantzuna emateko duen betebeharra. Kasu honetan, isiltasunak interesdunak egindako eskaera ukatzea ekarri du, baita denboran luzatutako kalte nabarmena ere. Aipatutako denboran kexagile herritarrak ezin izan du jakin, hain zuzen ere, zergatik ukatu duen Donostiako Udalak behar bezala egindako eskaera -neurri batean administrazioak berak sustatutakoa-, aintzat hartuta interesdunari ahoz helarazi zitzaizkion udal instantziek bere demanda premia bereziko egoerentzat, berea halakoa zen, ohiz kanpoko bidean ofizioz izapidetuko zutenaren aukera.

Bestalde, udal horrek erantzuna behintzat eman izan balu, ezekoa izan arren, erantzun horrekin batera zegozkion arrazoiak eman beharko ziren, 30/1992 Legearen 54. artikulua arabera. Hala, interesdunak erantzunari aurre egiten lagunduko zuen, legeak errekurto bidearekin ematen dizkion defentsa bitarteko bidez. Hori horrela, Donostiako Udalak izandako



jokabidearekin, pertsona horri zuen arazo larria garaiz konpontzeko irtenbidea ukatzeaz gain, bere defentsarako aukerak ahultzeko kaltea ere eragin zaio. Ildo horretan, Arartekoak askotan salatu du oso arriskutsua dela administrazio isiltasuna. Izan ere, pertsonak babesik gabeko egoeran kokatzen ditu, ez baitakite administrazioak zer egingo duen bere asmoarekin, behin-behinean erantzuna berrikusteko eskubideaz baliatzeko dagokion kaltearekin.

3. Bigarrenik, udal horrek larriki urratutako beste legezko betebeharra aipatu nahi dugu, hots, Eusko Legebiltzarreko goi komisario horrek burutzen duen euskal herri-administrazioen ikerketa eta kontrol egitekoarekin elkarlanean aritzeko betebeharra. Eginbehar hori Eusko Legebiltzarreko Arartekoaren erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legean jasotzen da.

Kasu honetan, herritar baten ekimenak eragindako Arartekoaren esku-hartzea ez da bakarrik oztopatu, blokeatu ere egin da erakunde honen etengabeko eskaerei erantzunik ez emateagatik. Horrek erakunde honek jasotako kexa behar bezala bideratzeko eta, ondorioz, legeak Eusko Legebiltzarreko goi komisario gisa ezartzen dion herri-administrazioen jardueren kontrol lanak bete ahal izateko ezintasuna ekarri du.

Aipatutako 3/1985 Legeak argitasun osoz ezartzen 23. artikuluan bere kontrolaren menpe dauden organismo eta erakunde guztiei ezartzen zaiela erakunde honekin elkarlanean aritzeko betebeharra. Aipatutako organismo eta erakundeen artean, besteak beste, lege bereko 9.1. artikuluan aipatzen dena dago, alegia, *“Tokiko administrazioa, Autonomia Estatutuko 10.4. artikuluan ezarritako eskumen esparruan horren menpeko diren organismo autonomoak, sozietate publikoak eta gainontzeko erakunde publikoak barne”*. Egokia da 23. artikulua horretan ezarritakoa hitzez hitz gogoratzea. Hauxe dio:

“Laguntzeko betebeharra. 9.1 artikuluan aipatzen diren erakundeetako organoek eskatzen zaizkien datu, agiri, txosten edo azalpen guztiak aurkezteko betebeharra dute, lehentasuna emanik eta albait lasterren.”

Gertakarien azalpenean argi eta garbi adierazten den moduan, esan dezakegu, erantzunik jaso ez duten erakunde honen informazio eskaera baten eta bi errekerimenduren ostean, udal horrek behin eta berriro eta etengabe ez duela bete legezko betebehara hori. Lehen aipatu dugu horrek gure erakunde funtzioak blokeatu dituela.

Azkenik, esan behar dugu 3/1985 Legearen 24.2. artikuluan, besteak beste, laguntzarik ezaren eta Arartekoaren kudeaketa oztopatzearen ondorioak xedatzen direla. Honako hau aipatzen da:



24.2. "Herri-administrazioaren zerbitzura dagoen organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonaren batek Arartekoaren ikerketa lanaren aurkako jardueran edo jarduera oztopatzailean jarraitzen badu, txosten berezian ikertu ahal izango da, bere urteko txosteneko dagokion ataletik baztertzeaz gain."

Hori dela eta, aipatu behar dugu, 3/1985 Legearen 24.2. artikuluan ezarritakoari jarraiki, erakunde honek ebazpen honen berri Eusko Legebiltzarrari hurrengo urteko txostenean emango diola, bereziki aipatuz Donostiako Udalaren ez betetzea.

Horregatik guztiagatik, azaldutako aurrekariak eta gogoetak aztertu ondoren, kontu honetan gure esku-hartzea amaitzea erabaki dugu. Hala ere, honako ondorioak hauek atera ditugu:

Ondorioak

1. Donostiako Udalak kexagileak behin eta berriro egindako eskaerak ez ditu erantzun eta ez dio behar bezala egiaztatutako premia egoerari irtenbidea eman. Aipatutako irtenbidea udalari zegokion bideratzea. Hori horrela, udal erakunde honek herritarraren defentsa aukerak kaltetu ditu. Izan ere, aipatutako herritarrak ez daki zergatik ukatu den de facto bere asmoa. Hori interesdunarentzat udalaren isiltasuna izan da, hain zuzen ere.
2. Donostiako Udala ez da elkarlanean aritu Arartekoaren erakundearekin, ez baitio erantzunik eman inolaz ere erakunde honen eskaerei eta errekerimenduei. Udalak, horrela, gainera, behin eta berriro erakunde honekin elkarlanean aritzeko legezko betebeharra ez du bete.
3. Jokabide horrek ez du Arartekoarekin egitekoa bakarrik oztopatu, blokeatu ere egin du eta horrek gure erakunde funtzioaren betetzea larriki kaltetzen du.
4. Arartekoak Eusko Legebiltzarrari Donostiako Udalaren jokaeraren berri emango dio, ebazpen hau hurrengo urteko txostenean argitaratuz eta bereziki aipatuz laguntzarik eza.